

Artearekin, artez

Arte ondarea lekukotasun sinboliko aparta da, historiako garai baten eta garai horretako gizon-emakumeen isla bizia. Izan adierazpen plastikoak, hizkuntzazkoak edo soinu adierazpenak, izan sakro edo paganoak, izan erraldoi edo ñimiñoak, betebehartzat hartu behar da horiek iraunaraztea eta zaharberitzea. Lan hori bera ere, arteari hain atxikia egoki, arte diziplina bihurtu da, ikusgarria eta bitxia. Aspaldiko metodoak hartu eta asko -izugarri- findu dituzte teknikak eta ezagutzak azken hogeita hamar urteetan; hain da lan espezializatua, ebakuntza kirurgikoen neurrira jarriak daude zaharberitze prozesuak.



1. Erretaularen txanda

Artelan zahar gehienak egoera negargarrian iristen dira zaharberritzaileen eskuetara (irudi honetako erretaula, adibidez). Zatiak falta izaten dituzte istripu eta lapurreten eraginez, edo noizbait egindako konponketa traketsen arrastoak ageri dituzte, edo estiloa aldatu diote garaiko gustuetara egokitzeko. Artelanarekin zer egin eztabaiatzen hasi aurretik, ongi aztertu behar izaten dituzte, eta taldean egiten dute hori; batetik, kimikariek eta fisikariek parte hartzen dute (Zientziaren ikuspegia), eta, bestetik, arte historialariek eta zaharberritzaileek (Humanitateen ekarria). Prozesu horretan hartzten diren erabakiek esango dute zer lan

egingo den aurrerantzean; protokolo batek ezarriko du eginbeharrak zein hurrenkeratan egin, eta, segur aski, aurrekontu batek baldintzatuko du guztia. Aldamiaoa jartze hutsa, adibidez, oso garestia izaten da. Hortik aurrera, elkarri eskutik helduta joango dira metodoen eraginkortasuna eta ekintzen zehaztasuna: garbitzen hasi, kolorearen oinarriak finkatu, emaitzak sendotzera utzi, estukatu, urrea eta tonuak itzuli eta, bukatzeko, azken babesa eman.

2. Iraunarazi eta zaharberritu

Artelan bat guztiz hondatuko ez bada, eskua sartu behar izaten zaio, baina ahalik eta gutxien ukitu nahi izaten dute; ezinbestekoa baino ez. Egoera fisiko eta kimikoa

hobetzeko egiten dituzte iraunarazte lanak, materialen berezko zahartze prozesua mantsozko eta gizakien okerrak zuzentzeko. Zaharberitze lanak, berriz, itxura estetiko lehengoratzeko izaten dira, baina betiere, denboraren joanak berekin eraman dituenak errespetatuz egiten dituzte. Eta oroz gainetik, egilearen borondatea errespetatu behar dute batzuek eta besteek, hark agintzen du. Hori lortuko duten segurtasunik ez badute, alderdi teknikoa utzita, materialak erretxinarekin sendotzera mugatuko dira, hautsa eta kandelen ke arrastoak garbitu ondoren.

3. Emaitza itzulgarriak

Urrats ugari egin behar dira zaharberitze prozesuan (garbiketa mekanikoak, kimikoak,

urra eta koloreak itzultzea...), eta materialak ere asko erabili behar izaten dira (espatulak, disolbagarriak, erretxinak...), baina guztiak izaten dira kaltegabeak, egonkorak eta itzulgarriak. Piezak berreraiki behar direnean ere, edo lehengo koloreak itzuli behar zaizkionean, helburua ez da hondatuta dagoen zerbait konpontzea, jatorrian zeukan adierazkortasuna ematea baizik. Denborak jatorrizkoaren arrastoak desagerrarazi egiten ditu askotan, eta horien bila jardun beharra dago, bai antzinako dokumentuetan, bai egile beraren edo haren ikasleen beste zenbait lan interpretatuz eta haiekin alderatuz, edo, bestela, garai bertsuko beste lan batzuk eredu hartuta.

4. Nazioarteko jakinduria

Zikinkeria eta berniz herdoilduak kendu, kolorea galdu duten tarteetan estukoa eman, hutsuneak betetzeko eta orekatzeko txertoak egin gero urrea itzuli ahal izateko... eguneroko lanak ez du etenik. Zaharberitze lanak egiteko, nazioarteko gomendioak hartzen dituzte aintzat profesionalak, eta gehien-gehienak Veneziako eskolatik eta Florentziatik datoz. Italiarrek dute zeresan gehien arlo horretan.

5. Lehen eta orain

Landare tinduz estalitako egurrak eta paper mineralarekin apainduak. Antzinako artelanen materialak, gehienetan, organikoak izaten dira. Horientzat ere ez da alferrik pasatzen denbora. Berez hondatzeaz gain, ordea, garaian garaiko gustuen arabera moldatu ere egiten dituzte lan batzuk. Eta, ondorioz, lehen soiltasunez beteta zegoen irudi bat, orain apainduraz estalitako ikono bihurtu da. Bietako zeini eman behar zaio balio gehien? Ez dago erabateko erantzunik. Ikusi egin behar da zein helbururekin zaharberritu nahi den, eta, noski, zenbateko aurrekontua dagoen eta zenbat denbora. Hala ere, artelana hobeto ikusten eta ulertzen lagunduko duen itxura estetiko itzuli nahi izaten zaio beti. Artelana lehengoratzeko jardun horretan, batasun bat eman nahi izaten zaio, gauza jakina da-eta ezinezkoa dela jatorrizko egoerara eramatea, egileak egin zuen hura lortzea, sortze-ekintza bat eta bakarra baita berez. Esku onetan jarritz gero, ordea, sortzerakoan eduki zuen egitura estetiko eta narratiboa emango diote ukitut ukitu. //

